

25 URTE BESTE DONOSTIA ERAIKITZEN

A Z A R O A



Aritz Branton: 25 ikustea jaio gara... baita gehiago ere

2017/11/24

Azaroaren 18an bagerakideok gure elkartearen 25. urteurrena ospatu genuen. Bilintxek eta Juana Bixenta Olabek hasiera eman zioten egunari –pentsa, 19. mendekoak eta oraindik ere euskaltzale amorratuak–, eta Nerea Arriolak –euskaltzale ez dena, sinesten badiogu– bazkalosteko bakarriketan.

San Telmo museoan izan genuen ekitaldian, baita Zurriola Ikastetxeko bazkari ederrean ere, umorea eta poza gakitzen genituen, modu horretan euskararen edertasuna eta alaitasuna islatu nahi genituelako.

Besteak beste, Kike Amonarrizek galdera zail-zailak egin zizkigun –ea argazki bat arratsaldeko hiruretan edo laueta eginda zen, esaterako–, eta Haatik dantza taldeak liluratu gintuen airetik atera zuten magiarekin.

Eta euskararen aldeko grina duten 25 donostiar txalotu genituen: irakasleak, auzotarrak, idazleak, dendariak... Euskarak euskaldunak egiten gaitu, eta, noski, euskara bizirik dago euskaldunon ahotsetan, buruetan eta bihotzetan; eta ahots, buru eta bihotz horiei esker bizirik dago.

Larunbatean gure taldea adin guztietako lagunez osatuta zegoen: oraindik euskaldunak ez diren haurtxo pare bat, baita ia laurogeita hamar urte dituzten aitzindari bi. Elkartearen hasieratik dauden lagunak ibili ziren, baita geroago etorri garenok ere.

25 urteotan Bagerak ekintza ugari antolatu ditu: mintzalagunak, Izarrak plazara, Bagera Kulturak... Egitasmo guztiek asmo bat bakarra izan dute: euskararen aldeko lana egitea, ezagutzari dagokionez, baita hizkuntzaren erabilera bultzatzeko ere. Emaitzak neurtzea ez da erraza, baina lagintzat har dezagun datu bat: aurten Bagerako Mintzalagun programan 400 lagun baino gehiagok parte hartuko dute.

Egunaren bukaera Añorgako Gaztelumenditarren esku zegoen, eta –Joserra Belokik lagunduta– borobildu ziguten ospakizuna. Gaztelumendi anaiak baino lehen, Nerea Arriolak barrez lehertuta utzi gintuen, eta euskaltzale ez dela frogatu nahi izan zigun bere bakarriketan. Azken hori ez dakit egia den, baina, nolabait, horrela izango balitz, euskararen osasun handia islatuko luke: hizkuntza gure laguntzarik behar ez balu, kale guztietan, erakunde eta denda guztietan lasai erabiliko genuke. Lagun guztiekin, eta gustura.

Beraz, paradoxa bada ere, Bagera desagertzea arrakasta izango litzateke: euskara normaltasun osoz erabiltzearen ondorio izango bailitzateke. Momentuz, aldiz, gauzak ez dira horrela, eta bagerakideok gure bidean jarraituko dugu, euskararen aldeko ekintzak bultzatzen, eta horiekin gozatzen. Gauzak umorez eta pozez egin nahi baititugu.